



Pasai Trintxerpe, 2017ko abenduaren 19an
PRENTSA - OHARRA

Iraia Oiartzabal goi joskuntzako disenatzaileak Trintxerpeko Ciriza Etxean aurkeztuko du bere bakarkako lehenengo desfilea, Juan Luis Goenaga margolari eta Pasaia Rabannekin elkarlanean.

- Pasaian, **Paco Rabanne Kultura eta Berrikuntzarako Espazioa** bultzatu nahi duten ekintza kultural berrien aurkezpena; oraingo honetan, **Iraia Oiartzabal** disenatzailearen eskutik.
- Ekintza hau, eraikuntza berean dagoen “Pasaia Rabanne imajinarioaren arrazoiak” erakusketaren koprodukzioarekin bultzatua izan da; Paco Rabanne, nazioartean ospezko disenatzaile handiari omenaldia egiten dioena.
- Disenatzaileak bere goi joskuntzako sorkuntzak erakutsiko ditu bere lehenengo bakarkako desfilean izango den honetan. Hau, **Trintxerpeko Ciriza Etxean** gauzatuko da larunbatean, **abenduaren 23an arratsaldeko 19:00etan**.
- **“Gau-emanaldi bat Cirizan”** goi joskuntzako desfileak, Juan Luis Goenagaren margolariaren presentzia izango du, baita musikari pasaitarrena ere, zuzeneko emanaldia eskainiko dutenak.

Pasaian, **Paco Rabanne Kultura eta Berrikuntzarako Espazioa** lortzeko helburuarekin, inizatiba hau bultzatu nahi duten ekintza kultural anitz burutu izan dira; lehenengoa, **“Pasaia Rabanne, imajinarioaren arrazoiak”** erakusketaren eskutik. Honek, uztailaren 28an ireki zituen bere ateak eta gaur egun, 1650 bisitari inguru jaso ditu, harrera ona edukiaz. Honen ildoan, erakunde sozio-kultural desberdinekin ekintza ugari burutu izan dira; elbarritu, jubilatuz eta Euskaltegi taldeekin bisita gidatuak antolatuz, eskolentzako tailerrak burutzera arte.

Bestetik, azaroaren 24ean **EHUN EHUN** espazio berria zabaldu genuen. Proposamen honek, textil teknika ardatz harturik aintzina eta oraina bilduko dituen zubia izan nahi du. Artea, artisautza eta textil diseinuari buruz hitzegin eta ikuspuntu desberdinak elkarbanatzeko espazioa sortu dugu, Euskal Herriko aintzinako tekniken ikerkuntza eta formakuntzaren irizpideetatik abiatuz. Honek, tailerrak eta TextilArt16 kolektiboaren **“Haria Galtzen – Perdiendo el Hilo”** erakusketa biltzen ditu, abenduaren 31 arte iraungo duena.

Egon badira elkarlanak ere Pasaiako elkarte kultura desberdinekin. Honen emaitza da hurrengo abenduaren 22an irekiko den **“Factorias de Creación”** izeneko erakusketa, **Pasaia Rabanne** eta **Trintxer Kulturalaren** arteko lankidetzaren fruitu dena.

Hasieratik proposamen sendoa izan dugu, kultura eta berrikuntza elkar biziko diren eremu bizia defendatzea, Paco Rabanne kultura eta berrikuntzarako espazioa, alegia. Kontemporanea, kreatiboa eta arte guztien etxea. Kultur arloko zerbitzu eta esparruek eginkizun erabakigarria jokatzen dute. Tokiko garapenera zuzendutako estrategiak aurrera eramatean, udalerrien gizarte, ekonomia eta



kultura ehuna susperrarazten dute. Pasai-Trintxerpen kokatuko zen eta Pasaia osoarentzako positiboa izango litzatekeen horrelako proiektu baten alde apustu egiteak, berekin dakar protagonismo kultural eta eraberritzailea bere gain hartzea eta kultura eta gizarteko adierazpenak hirigune handietatik gune periferikoagoetara deszentralizazioa ahalbidetzea.

Bide horretan, **Iraia Oiartzabal** (Pasai Antxo, 1987) disenatzailearen eskutik ekintza berri bat proposatzen da. Ekintza hau, Pasaia Rabanne imajinarioaren arrazoiak erakusketaren koprodukzioarekin bultzatua izan da; **Paco Rabanne**, nazioartean ospezko disenatzaile handiari omenaldia egiten dioena.

Iraiak, Bartzelonan burutu zituen bere goi mailako moda diseinuko ikasketak, Felicidad Duce goi mailako Moda Diseinuko eskolan. Era berean, Miguel Elola, Donostian Balenciagaren ikaslea izan zenaren disenatzailearekin lanean egon zen honen goi jostuntzako tailerrean. Han lortu zuen neurrira jantziak egiteko behar zuen jakituria guztia. Honen eta familiaren babesarekin Donostian bere goi jostuntzako tailera irekitzeko saltoa eman zuen 2011ean. Egun, neurrira egindako jantzi eskusiboak egin, diseinatu eta azken ukituak emateraino egiten du lan, garai bateko jostunek egiten zuten bezala.

Ezkontzetarako soinekoak egiteaz aparte, azken urteetan merkatu komertzialetik at ari da lanean, artista eta distiplina desberdinekin, goi jostuntzaren eskutik proiektu desberdinak burutzen. Honen eredu, **Kukai Dantza Taldearekin** aurreara eramandako elkarlana dugu. Honetatik, jantzi hoberenarentzako **Max Saria** irabazi zuen, **Oskara** izeneko ekitaldiarekin. Egun, Juan Luis Goenaga margolariarenkin proiektu berri bat egiten ari da. Lankidetzaren honen adierazgarri bat larunbateko desfilean ikusgai izango da.

Desfilea larunbat honetan Ciriza Etxean izango da, **abenduaren 23an 19:00etan**, Juan Luis Goenaga margolariaren presentziarekin. Bertan, Iraiak diseinatu eta jositako goi jostuntzako 25 sorkuntza ikusi ahal izango dira. Gau-emanaldia zuzeneko musikaz lagunduta egongo da, musikari pasaitarrek jotakoa. Edukiera mugatuko ekitaldia da; hortaz, hurbildu nahi duenak, aldezturik bere izena eman beharko du hurrengo bi lekuetan:

- **Pasaia Rabanne imajinarioaren arrazoiak erakusketa.** Ciriza Etxea, Euskadi Etorbidea, 20110 Trintxerpe.
- **Komorebi.** Marina kalea 7, 20007 Donostia.

Proposamen erakargarria dugu hau, Pasaia Europako beste hiriekin parekatzen duena, non Ciriza Etxea bezalako eraikuntza industrial zaharrak erabiltzen diren, moda desfile edo ekintza kultural desberdinak burutzeko.

Ekitaldiak, **Pasaiako Udaletxea**, **Garbi Garai**, **KELER** eta **Rafa Gorrotxategi pastelgilearen** babesa jaso du. Hauei, aldezturik ekitaldian sinestu eta parte hartzeagatik eskerrak eman nahi diete antolatzaileak.

HARREMANAK

Iraia Oiartzabal
Diseñadora
info@iraiaoiartzabal.com
+34 618 120 549

Kike Santiago
Pasaia Rabanne zuzendaritza
pasaiarabanne@gmail.com
+34 664 591 829

